

◆ irakurtzekoak ◆

Bizitza bera bezala bizitza bera

ertzetik

Gerardo Markuleta

Kearen astuna

■ *Smoke* filmearen hasieran, tabako-dendan gertatzen den lehen eszenan, Paul Benjamin izeneko idazle-pertsonaiak filmean izenburua argi dezakeen anekdota historiko bat kontatzen du: sir Walter Raleigh-ek (1552-1618) apustu bat egin omen zion gortean babesle izan zuen Isabel I. erreginari, kearen pisua baietz neurtu. Erreginak, tabako-dendako lagunak bezain harriturik, sinesgogor erantzun-go zion ezinezkoa zela hori, aire pisatzea bezain ezinezkoa. Filmean William Hurt-ek, idazlearen papera jokatzeko duen aktoreak, Paul Auster-en esaldi batez erantzuten die: «*Bitxia da, bai, onartzen dut. la pertsona baten arima pisatzea bezain bitxia*». Eta Raleighk erabili trikimailua azaltzen die: Zigarro bat hartu, balantza batean jarri eta pisatu egin zuen. Gero zigarroa piztu eta lasai arraio erre zuen, baina oso kontu handiz errauts guztia balantzako platertxo barrura eror zedin. Bukatutakoan, zigarrokina errautsa bildutako platertxoan jarri eta hori guztia pisatu zuen berriz. Gero kopuru hori zigarro osoaren hasierako pisuari kendu, eta horra: bien arteko aldea kearen pisua omen zen.

Jende askok, filmeari buruzko laudorio ugari entzun-irakurri ostean, filma ikustera joan eta sekulako asperraldia igaro omen zuen: mantso, geldo, sustantzi-gabea gertatu omen zitzaion, hitz batez: *literarioegia*. Ez nau sekula harritu jendeak zine *literarioa* labela beti zentzu gaitzesgarrian erabiltzeak, baina beti kezkatu izan naiz —filme hollywoodtar gehiegi ikusi dutelako topikoaz harago— horren sakoneko arrazoiak bila. Eta horra non, *Smoke* eta *Blue in the face* filmeen gidoi/eskenarioak biltzen dituen liburuko sarreran, Paul Auster gidogile eta ko-zuzendariari egindako elkarrizketan, honako berba argigarriak aurkitzen ditudan: «*Zuzendaritza artistikoa langintza liluragarria da. Benetako osagarri izpirituala dauka. Zeren munduari adi-adi begiratzea eskatzen baitu, gauzak diren-direnean ikustea, eta ez izatea nahiko zenukeen moduan, eta gero beroriek birsortzea helburu erabat alegiazko eta fikziozkoekin. Munduari hain adi begiratzea eskatzen dizun langintzak, zein nahi ere den, langintza ona behar du izan, arimarako on den langintza*».


Sir Walter Raleighk *Mundua-ren historia* idatzi omen zuen. Virginia kolonizatzen saiatu, Guyana esploratu eta Espainiari eraso zion Cadizen. Halako batean hiltzeko zigorra ezarri zioten arren, biziarretako gartzela-zigorraz ordezkatu eta Londreseko Dorrean atxiloturik izan zen urtetan: El Doradorako espedizio bat presta zezan askatu zuten. Itzuli zenean, lepoa moztu zioten. ■

/ Lope de Agirre kuku egiten / Klaus Kinski aurpegirekin) eta nagusiki amodioaren tratemendua nagusitzen diren poemak.

Gainerakoan literaturari buruzko jarduna nabarmenduko nuke, arestian aipatutako bizitza / literatura bereizteko ezintasunagatik: ugariak dira bai euskal autoreei buruzko aipamenak (Oihenart, Axular, Aresti, Lizardi, Jon Mirande, Bernardo Atxaga, *Mesagem ao Bernardo Atxaga* poeman) hala nola euskal idazleen zein literaturaren kolektibitateari zuzenduriko aipuak, hala nola *Poesia hilda dago baina ez naiz ni izan* poeman edota *Poesiaren gauza galdua* izena duen testuan, honela baitio: «*Poesiak ez du deus aldatzen, ez inor / fanatiko bihurtzen / baina ekin dezagun harik eta gure aberri eta / sasoiaren tankerako hitzak aurkitu arte, /.../ Kanta diezaiozun sehaska kanta bat gure aberriaren / sehaska hutsari*». Aldarte berean *Proposamen poetikoa* deritzon poeman ere. Beste horrenbeste ere egiten du gaur egun zoritxarrez, bere egoera dela eta: «*Hurrutirean ura oraindik boluara badator ez zait axola / inork euskal poeta ilun, ilun, iluna deitzea*».

Esanak esan, betirako gelditzen diren poemak bilduma baten aurrean gaudela esanez labur genezake aurkezpen arras dotoreko liburu honen emaitza: Joseba Sarrionandia, ez gehiago ezta gutxiago ere.

Xabier Aldai




Izenburua: Hnuy Illa Nyha Majah Yahoo. **Egilea:** Joseba Sarrionandia. **Argitaletxea:** Elkar, 1995.

rea, liburuan aurki daitezkeen atsedenaaldi bakarretara hain zuzen ere, atsedenaaldi diot ez lexikoa astuna edo nekeza delako; aitzitik, zuzena da, zehatza, umore puntu finekoa baina zorrotza eta mingarria; aldiroaldiro ia nahitaezkoa da bere irakurketa alboratzea sortzen duen jasan ezinagatik: hain dira gertukoak testuak, gaur egun bizi dugun Euskal Herriaren izate edo ez izatean hain murgilduak... hor sailkatuko nituzke adibide gisa *Kukuaren koblak* (*Zuhaitz ostetik hantxe dakusat / ene begi luzekin:*

tan bederen. Konpromezua bezalako hitz hutsal eta gorroto-garriaren hortzoiei ihes egiteko balio dio izaera honek: ez nuke Sarrionandia autore konprometitu bezala definituko, baizik eta maila gorago batera doala esango nuke; ildo honetatik erreferentziak ugariak dira, esate baterako *Literatura eta iraultza* poeman: «*Zein da literaturarentzat / errebeldiaren, iraultzaren, abenturaren / balio etiko ahortezina? / Zer izkiriartzen da Vooprosi Literaturi edo Tel Quel / aldizkariaren ertzean / euskal presoaren gose greba amaigabeez?*». Zuzena da zeharo, gordina, zorrotza: «*Zer zoriontsua zatekeen / euskaldun sortzea / mundua Pierre Loti-ren liburua / balitz*». Ihes nahiak jota besoak zabaldu eta preso mantentzen duen paretaren ordez bere aurrean infinitoa, hustasuna edo ezerezarekin topo egin duenarena da Sarrionandiaren jarrera, herriaren baina exiliatua, aske baina preso, bizirik eta bizik hilda, atezuan, erne: inoiz irakurri dudak poemarik etsituena —lehendik ezaguna izanagatik ere beti hunkitzen dutenetarikoa, *Gartzelako poemak* deitutako liburuan Joseba Asensio, *Preso egon denaren gogoa* edo *Aberriaren astuna* paparrean izeneko poemak kasu— ere atal honetan aurkitzen da: «*Bidaia bizitzaren metaforsat har daiteke / Heriotza zapata hautsi pilo bat, / ...Zapata hautsi pilo bat, kordoirik gabe, / zeren eta kordioak bidazteiek eraman dituzte / beren buruak nonbait urkatzeko*».

Jarrera berberak muga onirikoetara zuzentzen du auto-

Hamaika ikusteko jaioak gara



Izenburua: Kutsidazu bidea, Ixabel! **Egilea:** Joxean Sagastizabal. **Argitaletxea:** Alberdania, 1995.

dunaldi euskarazkoa ez baita hizkuntza bat mintzatu baino gehiago zirtakatu eta marruskatzen duen batentzat ahuntzaren gauerdiko eztula. Noizbait topo egin beharrak ziren Juan Martin eta euskara, eta euskararekiko jakin-egarria berdintzeko aukera aparta izango zaio. Hasieran ez dezake deus askorik, euskara itxia baita baserritarrena. Altzairu onarekin normahi da erremetari pentsatuko bide du Juan Martinek. Hizkuntzari ebaindu ederrak joko dizkio, baina aztarrika bada ere, onik aterako da umorez; eroriko galantak hartuko ditu aspertuxe eta are nazkatuxe egon arte, baina leherrenak egingo ditu umorez; besteekin ezin ulertzearekin hartuko du erdi etsia, baina umorez. Baina dena ez da hizkuntzarekiko grina, Juan Martin neska-goseak, eta prezeski, Ixabelekiko gogoak jango dute. Ez du Ixabel beste buruhausterik. Eta mila pasadizo eta

harrimen, baserritarrak ez baitira hain tentel eta txolin, kaletarrei askotan itxurak hala iruditu arren. Eta hango giroaz eta ohituraz hamaikatzeko gauza ikasiko ditu, eskubete lan baitago baserrian.

Kontaezin konparazio bitxi eta irudimenezko daude. Pertsonaien karakterizazioa paregabea da. Elkarrizketak beste horrenbeste, erdera zirrikituetan tarteka martekatzen duela barrea areago eragiteko. Barra-barra, aterraldirik gabe. Erreferentzia biziak dira, marrazki bizidunekikoak (alegia, *tximistak egiten joan* esateko *Speedy Gonzalez*en egin dio), gaur egungo iragarki zein pelikularekikoak, euskal zein beste herrietako mitologiarekikoak... Ateraldiak nahi lain. Joxean Sagastizabalen ustez euskal literaturak lotsagabekeria, rock-and-rolla eta pasioa behar baititu.

Amaia Iturbide

■ Zaila da aparteko pizgarri-rik aurkitzea lehendik irakurritako poemak berriro baina beste liburu batean bildumata dituzunean esku artean. Estreinako aldiz irakurri ostean sortutako zirrarak eta irizitako goi maila hori oraingoan apala eta besterik gabea suertatuko ote den beldurraren harra gailentzen hasten da horrelakoetan.

Arras poetikoa den ipuinarekin hasten da bilduma, nolabait ere zubiaren funtzioa betetzen duela deritzot *Gartzelako poemak* bilduman ageri den Sarrionandiarekiko. Sentibera da oso eta fina, irakurtzeko erraza, goxoa benetan, hitz gutxi edo hitz juxtuarekin unitso harrigarri bezain sinpleak sortzeko gaitasun aparta ageri du autoreak lehen ipui honekin. Hemen ageri dira ondoren maiz agertuko diren eta orotara egilearen bere-be-reak iruditzen zaizkidan hainbat konstante; esate baterako ipuiaren amaierako bidaia itxaropenik gabea eta dekadentea, zeinek ondoren datorenen *Tren luze eta bustiak* deituko ataleko aurkezpen modura jokatzen duen *Inongo lekuak* deritzon lehen poemak ongi erakusten du bide hori: erantzunik ez duten galderen kateamendua da, autoreak zapaltzen dituen lur desegurren iduriko, poemaren amaierak nire uste apalean agertzen duen bezala: «*Baina itzultzen dena / abiatu zeneko lekura itzultzen da ala?*». Emaitza hutsa da Sarrionandia, oso autore pertsonala, bizitza eta literaturaren arteko mugak estutzen dituena, biak bat bihurtzeraino kasu asko-

■ Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu bidea, Ixabel!* (Alberdania, 1995) ez da literatur-lan gorengoen parekoa, ezta jasoa ere. Baina, haatik, irakurtzea merezi du, edo hobe esanda, grazia merezi, barregarria baita narrazio labur hau burutik burura, inon barregarrikerik izan bada. Protagonistak bere buruaz ezezik besteenez ere bapodaki barre egiten, edotariko egoera dela aitzakia adarra josten eta maixeatzen. Gatz pipertuez mukururaino bete narrazioa. Eta literatura asko jakinentzakoez gainera irakurle arruntarentzat ere denez gero, gomendagarri da *Kutsidazu bidea, Ixabel!*, batez ere, euskaltegietan eta euskara ikasten ari direnentzat.

Argumentua hauxe da. Juan Martin euskarazko ikaslea euskara trebatzeko eta bermatzeko asmoz baserri batera doa. Hara heldu orduko babak eltzetik berak bakarrik atera beharko ditu, zortzi orduz gorako jar-